

ARTIUM MUSEOA

Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo

ARTE GARAIKIDEKO DOKUMENTAZIO-ZENTROEN X. TOPAKETAK

Artxibo eta bilduma
berezien kudeaketa
ondare-erakundeetan

2020ko urriaren 22an, osteguna, eta 23an, ostirala

Arte garaikideko dokumentazio-zentroen X. Topaketak

Artxibo eta bilduma berezien kudeaketa ondare-erakundeetan

Artium Museoak Arte garaikideko Dokumentazio-Zentroen Topaketak antolatzen ditu, bi urtez behin, 2002az geroztik. Topaketa hauen helburua da dokumentazio-zentroen egitekoa aztertzea, informazioaren kudeaketa eta zabalkunderako estrategia berriekin loturik, bai eta informazioaren teknologiak baliatzea ere, zentro horien arteko lankidetzaprogramak sustatzeko.

Topaketen bidez informazioaren profesionalak aukera dute esperientziak trukatzeko, kudeaketarako estrategia berrien inguruan gogoeta egiteko, eztabaida sortzeko eta ikerketa bultzatzea eta kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskaintzea xede duten lankidetzaprogramak sustatzeko.

Edizio honetan, asmoa da zentro espezializatueta dokumentu-ondareaz egiten den kudeaketa aztertzea eta museo, unibertsitate eta dokumentazio-zentroetan garatzen ari diren proiektu digitalak ezagutzea, betiere, zentro horietako profesionalen arteko talde-ikaskuntza eta esperientzien trukea bultzatuz.

Hizlariak

Elena Roseras Carcedo, Artium Museoa; **Asunción Maestro Pegenaute**, Liburutegi Zerbitzua; **María Camino Barcenilla Tirapu**, Kultura Zuzendaritza Nagusia; **Itziar Arrieta Salinas**, Telekomunikazio eta Digitalizazio Zuzendaritza Nagusiaren Kultura eta Kirol Saila; **Juanjo Asa Mina**, proiektuen kudeatzailea, CONASA enpresa. Nafarroako Gobernua; **Oihana Aranburu Balerdi**, Xenpelar Dokumentazio Zentroa; **María Luisa Cuenca García**, Prado Museo Nazionala; **Paz Fernández Fernández-Cuesta**, Juan March Fundazioa; **Teresa Malo de Molina**, Madrilgo Carlos III Unibertsitatea; **Nuria Rodríguez Ortega**, Malagako Unibertsitatea; **Paloma Gueilburt**, MACBA; **Beatriz Fernández Rodríguez**, Madrilgo Reina Sofia Museo Nazional eta Arte Zentroa; **Mar Pérez Morillo**, Espainiako Liburutegi Nazionala; **Gloria Vilches**, Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroa (CCCB); **Alicia Parras**, UCMko Informazio Zientzien Fakultatea/ PaDem ikerketa-taldeko kidea.

Urriak 22, osteguna, eta 23, ostirala

Sarrera doakoa da, aldez aurretik izena emanda. Edukiera mugatua.

Informazioa eta izen-ematea: biblioteca@artium.eus
edota 945 20 90 20/ 945 20 90 12 telefono-zenbakietan

Nahi duenak birtualki parte hartu ahal izango du, *streaming* bidez. Izena emateko unean emango zaizue dagokion esteka.

URRIAREN 22AN, OSTEGUNA

- 9:00 - 9:30 Harrera. Akreditazioa
- 9:30 - 9:40 Hasiera-ekitaldia
- 9:40 -10:15 **Erakusketa-programaren eta Bildumaren dokumentazioa, Museoaren memoriaren kudeaketa eta artxibo dokumentalen garapena Artium Museoaren Dokumentazio Zentroan**
Elena Roseras Carcedo. Artium Museoko Liburutegiaren eta Dokumentazioaren arduraduna
- 10:15 -11:00 **Portal Digital de la Cultura de Navarra**
Asunción Maestro Pegenaute. Liburutegi Zerbitzuko zuzendaria; **María Camino Barcenilla Tirapu,** Kultura Zuzendaritza Nagusiko Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Ataleko burua; **Itziar Arrieta Salinas,** Telekomunikazio eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiko Kultura eta Kirol Arloko Proiektuen Ataleko burua; **Juanjo Asa Mina,** CONASA enpresako kidea, proiektu-kudeatzailea Saitetako Informazio Sistemen Zerbitzuan Nafarroako Gobernua
- 11:00 -11:45 **Bertsolaritza, bat-bateko artea dokumentatzea**
Oihana Aranburu Balerdi. Xenpelar Dokumentazio Zentroko koordinatzailea
- 11:45 -12:15 Atsedenaldia
- 12:15 -13:00 **Prado Iragankorra: Prado Museoaren historia grafikoa webgunean**
María Luisa Cuenca García. Liburutegi, Artxibo eta Dokumentazio Saileko burua. Prado Museo Nazionala
- 13:00 -13:45 **Liburutegia, komisariotza-eragile modura.**
Arte garaikideari buruzko proiektu digitalak
Paz Fernández Fernández-Cuesta. Juan March Fundazioko Liburutegiko zuzendaria
- 13:45 -14:15 Goizean landutako gaien gaineko eztabaida
- 16:15 -17:00 **Liburutegia ikerketarako ezinbesteko euskarri**
Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatean
Teresa Malo de Molina. Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko Liburutegi Zerbitzuko zuzendaria

-
- 17:00 -17:45 **Eduki bisualak antolatzeko eta kudeatzeko eredu berriak gizakia-makina elkargunean**
Nuria Rodríguez Ortega, Malagako Unibertsitateko Artearen Historiako katedraduna
- 17:45 -18:15 Arratsaldean landutako gaien gaineko eztabaida
- 18:30 Bisita gidatua Artium Museora

URRIAREN 23AN, OSTIRALA

- 9:30 -10:15 **MACBA Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko Artxiboaren Biltegi Digitalaren katalogoa**
Paloma Gueilburt. MACBA Biltegi Digitaleko teknikaria
- 10:15 -11:00 **Reina Sofia Museo Nazional eta Arte Zentroaren Artxibo Nagusia (2008-2018): gaur egungo antolaketa eta aurrera begirako planteamenduak** (16. orrialdea)
Beatriz Fernández Rodríguez. Madrilgo Reina Sofia Museo Nazional eta Arte Zentroko Artxibo Nagusiko arduraduna
- 11:00 -11:45 **Web-artxiboa: lege-gordailua aro digitalean**
Mar Pérez Morillo. Prozesu eta Zerbitzu Digitalen Dibisioko zuzendaria (Espainiako Liburutegi Nazionala)
- 11:45 -12:15 Atsedenaldia
- 12:15 -13:00 **Xcèntric artxiboa. Zine esperimentala nahieran, CCCBn**
Gloria Vilches. Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroaren (CCCB) zine esperimentaleko Xcèntric programaren arduraduna
- 13:00 -13:45 **Gizarte-sareetako irudi analogikoari buruzko gogoetak: dokumentu likidoa eta artxibo iragankorrak. @foto_historias proiektua**
Alicia Parras Parras. UCMko Informazio Zientzien Fakultateko Dokumentazio Unitateko irakaslea eta PaDem (Patrimonio Digital en Medios) ikerketa-taldeko kidea
- 13:45 -14:15 Goizean landutako gaien gaineko eztabaida
- 14:15 Jardunaldien amaiera

Hitzaldiak

Urriaren 22an, osteguna

9:40 -10:15

Erakusketa-programaren eta Bildumaren dokumentazioa, Museoaren memoriaren kudeaketa eta artxibo dokumentalen garapena Artium Museoaren Dokumentazio Zentroan

Elena Roseras Carcedo. Artium Museoko Liburutegiaren eta Dokumentazioaren arduraduna.

Artium Museoko Liburutegi eta Dokumentazio Zentroa ikertzeko, ikasteko eta edukiak nahiz esperientziak sortzeko gune bat da, eta bertako baliabideak eta zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonengan jartzen du arreta.

Kultura eta arte garaikidearen esparruan eduki eta zerbitzu digitalak sortu eta zabaltzea sustatzen da bertan. Jarduera-ildo horren barruan, informazio-estrategia bat garatzen ari da, oinarritzat duena Museoko bildumaren eta erakusketen harira sortutako dokumentazio guztia sustatu eta indartzea.

2019an, *Zeru bat, hamaika bide: Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian* erakusketaren dokumentazioa landu zen. 2020ko otsailean inauguratutako erakusketa horren muina Artium Museoko bildumaren funtsak dira, eta euskal testuinguruan garatutako praktika artistiko eta kulturaleri buruzko gogoeta zabala proposatzen du.

Erakusketak erantsita darama dokumentazio ugari, zeinaren xedea baita praktika artistiko garaikideak hobeto ulertzeko lagungarriak diren une eta gertaera historikoak indartzea. Ildo horretan, erakusketaren proiektuarekin lotutako azterketa eta dokumentazio-lana egin da; horrek erakusketa testuinguruan kokatzen lagun dezake, Museoaren ekintza-eremua zabal dezake, eta ikerketarako, eztabaidarako eta pentsamenduaren hedapenerako zentro gisa dituen funtzioak indartu ditzake.

Erakusketaren azterketa-eremuko artisten, lanen eta gertaera kulturalen artean sortzen diren eragin-harremanak ezagutzera emateko asmoz, denbora-lerro bat osatu da, erakusketako lanen testuingurua ezagutu ahal izateko. Denbora-lerro horri esker, testuinguruan kokatuta bisita dezakegu erakusketa.

Artium Museoko Liburutegi eta Dokumentazio Zentrotik erakusketa bibliografikoak antolatzen dira urtero, funts eskuratu berriak aurkezteko.

2019an, *Argitalpen-proiektuak eta artista-liburuak* erakusketa programatu zen. Artiumeko erakusketa bibliografiko horrek artista garaikide ezagunen argitalpen-proiektuekin lotutako funts erosi berrien sorta bat aurkezten du.

2020an, birtualki bakarrik programatu da *Argitalpen-proiektuak eta artista-liburuak II: Caniche Editorial, Consonni eta Entreascuas* erakusketa bibliografikoa. Erakusketak Artium Museoko Dokumentazio Zentroko argitalpen berezi batzuk biltzen ditu, eta ibilbide bat eskaintzen du Caniche, Consonni eta Entreascuas argitaletxeen lanean barrena.

Era berean, Dokumentazio Zentrotik **Artiker** garatzen ari dira, Artium Museoko ondare dokumentala zabaltzeko eta ezagutzeko tresna bat. Museoko funts dokumentalen, jardueren eta edukien kudeaketa eraginkorragoa eta ezagutza nahiz hedapen hobea lortzea helburu, bereziki lantzen ari dira proiektua osatzen duten material eta bilduma guztien sistematizazioa, katalogazioa, digitalizazioa eta hedapena.

Urriaren 22an, osteguna

10:15-11:00

Nafarroako Kulturaren Atari Digitala

Asunción Maestro Pegenaute. Liburutegi Zerbitzuko zuzendaria

María Camino Barcenilla Tirapu. Kultura Zuzendaritza Nagusiko Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Ataleko burua

Itziar Arrieta Salinas. Telekomunikazio eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiko Kultura eta Kirol Arloko Proiektuen Ataleko burua

Juanjo Asa Mina. CONASA enpresako kidea, proiektu-kudeatzailea Sai-letako Informazio Sistemen Zerbitzuan

Nafarroako Gobernua

Nafarroako Kulturaren Atari Digitala Nafarroako kultura-ondarearen objektu digitalak antolatuta biltzen dituen liburutegi edo biltegi bat da, baina, horrez gainera, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren beste nahi irmo bati ere erantzuten dio: herritar ororentzat ikusgai eta eskuragarri jartzen ditu haren baliabide kultural guztiak. Kulturaren eskuragarritasunari, aberasteari eta hedapen digitalari begirako konpromiso bat betetzen du, araututa dagoena *Nafarroako Eskubide Kulturalei buruzko urtarillaren 15eko 1/2019 Foru Legean*.

Lege hori aitzindaria da bere arloan, eta «Kulturarako irispidea izateko eskubidea» izeneko kapituluan berariaz aipatzen du «Kulturarako irispide birtuala. Nafarroako Kulturaren Atari Digitala». Honela dio:

Kultura-arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako Kulturaren Atari Digitala sustatuko du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko zerbitzu publiko gisa, herritarrek haren bitartez eskura dezaten kultur informazioa eta dokumentazioa, eta Nafarroako kultur esparru digitala garatu eta sendotzen laguntzeko

Nabarmendu beharra dago Ataria eraiki eta ezartzeko zeharka eta elkarlanean aritu direla Nafarroako Gobernuko hainbat sail. Alde batetik, Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusia, bertako Zerbitzuak (Artxiboak eta Ondare Dokumentala, Liburutegiak, Museoak eta Ondare Historikoa) eta Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atala proiektuaren buru izan dira, eta bestetik, Telekomunikazio eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusia kudeaketa teknikoaz eta teknologikoaz arduratu da.

Sorreratik pentsatu zenez, etorkizunean, atariak foru-administrazioaren baliabide kultural guztiak bildu nahi ditu, baita beste datu-iturri batzuetan daudenak ere. Une honetan, artxibo, liburutegi eta museoetako 281.500 dokumentu eta pieza baino gehiago daude argitaratuta, foru-administrazioaren informazio-sistemetatik eskuratuak. Zehazki:

267.000 Artxibo Irekitik hartutakoak dira. Bertan, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko baliabide digitalak argitaratzen dira, bertako fotote-kakoak, baita Artxibo Garaikidekoak ere.

12.900 Nafarroako Liburutegi Digmaletik hartuak dira.

1.600 Nafarroako Museoko fitxak dira, Espainiako Museo Bildumen Sare Digitalera esportatzen direnak.

11:00-11:45

Bertsolaritza, bat-bateko artea dokumentatzea

Oihana Aranburu Balerdi. Xenpelar Dokumentazio Zentroko koordina-tzailea

Bertsolaritza euskaraz egiten den ahozko inprobisazioaren tradiziozko artea da, errima eta metrika eredu jakin batzuei jarraituz kantatuz inpro-bisatzen den poesia. Bertso esaten zaio ahapaldi kantatu bakoitzari, eta bertsolari, bertsoak euskaraz kantatuz inprobisatzen duen pertsonari. Bertsolaritzaren forma idatzia ere badago, baina gaur egun bertsolaritzat bertsoak inprobisatu eta kantatzen dituen hartzen da batez ere. Bertsolaritzaren inguruko testigantza zaharrenak 1.452 urtekoak dira.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa 1991. urtean sortu zuen Bertsozale Elkar-teak. Zentroaren helburua bertsolaritzaren ondare ez-materiala zaindu eta zabaltzea da, eta, horretarako, ahozko ondare hori eskuratu eta ezagu-tzeko aukera ematen duten berriazko dokumentazio-teknikak garatu eta aplikatu ditu sorreratik. Ahozko ondareari dagozkion ezaugarriak aintzat hartuz, berez iragankorra eta materiagabea den arte bat dokumentu bidez betikotzea da helburua, bertsolaritzaren corpus egokia eta interesdun guz-tientzat irigarria izango dena sortzea. Dokumentazio zentroak, 29 urteko esperientzia dokumentalean, koordinatutako ataletan antolatutako egitura espezializatua sortu du, dokumentazioaren hiru funtzio nagusiak garatze-ko, hau da, bildu, antolatu eta zabaltzea.

Xenpelar dokumentazio zentroaren bilduma bertsozaleen altxor kolektiboa da. Zentroaren berezitasunetako bat bertsolaritzaren inguruan sortutako informazioa eta dokumentazioa biltzeko sistema bat antolatzea da: Bertsozale Elkarreak garatzen dituen proiektuen bidez egindako dokumentu-bilketatik eta bertsozaleen borondatezko dohaintzetatik elikatzen da zentroa: Grabazioak, bertso emanaldiei buruzko informazioa, liburuak, argazkiak, bertso paperak, artikulua, kartelak etab.

Dokumentuak pixkanaka antolatu dira, bertsolaritzari dagokion sistemazioa lortu arte. Bertsoen dokumentu-tratamendurako deskribapen-tresna eta irizpide espezializatuak sortu dira (tesauroak, transkripziorako arauak, melodiak sailkatzeko arauak, ediziorako irizpideak...). Azken urteetan, berriazko prozesu dokumental hau antolatzeko behar den programa informatiko propioa garatu da: BDB, bertsolaritzaren datu-basea (<https://bdb.bertsozale.eus/>). Ondarea zentroak eskaintzen dituen zerbitzu dokumentalen bidez zabaltzen da: Fonoteka, bideoteka, fototeka, liburutegia, bertsoeteka, artxiboa, hemeroteka, biografia eta bertso doinuen zerbitzua.

Gaur egungo bertsolaritzaren ikus-entzunezko ondarearen corpusa erakitzea izan da Xenpelar Dokumentazio Zentroaren egitasmo nagusienerako bat: Bertsolaritza ahozko kultur jardun bat izanik, ikus-entzunezko grabazioa da bat-bateko bertsolaritzaren euskarri dokumental oinarritzkoa. Hori dela eta, Xenpelar dokumentazio zentroa bertso emanaldien grabazioak biltzeko sarea koordinatzeaz arduratzen da, bai Bertsozale Elkarteko hedapen-proiektuek sortutako sinergiak aprobetxatuz, bai bertsozaleek beren borondatez egindako lanaren bidez, bertso-eskolen bidez eta abar.

Urriaren 22an, osteguna

12:15-13:00

Prado Iragankorra: Prado Museoaren historia grafikoa webgunean

María Luisa Cuenca García. Liburutegi, Artxibo eta Dokumentazio Saileko burua. Prado Museo Nazionala

Prado Iragankorra Prado Museoaren berrehungarren urteurrenaren ospakizunaren baitan jarri zuten abian, 2019an. Hasierako fasearen ardatza Prado Museoko artelanak, aretoko museografia edo Juan de Villanuevaren eraikin neoklasikoa (erakundearen egoitza nagusia) erreproduzitzen zituzten paperean inprimatutako lan iragankorrak bildu eta katalogatzea izan zen. Zentroak berak edo beste erakunde publiko batzuek ekoiztutako dokumentuak hartu ziren kontuan, eta alde batera utzi ziren enpresa pribatuek Prado Museoaren irudiekin sortutako produktu komertzial eta publizitatezko edo papertegiko produktu ugari.

Proiektu horri esker, aurretik existitzen ziren postal-, kartel- eta liburu-xka-bildumak osatu dira, eta beste bilduma batzuk garatu dira, gonbidapenenak, sarrerenak, paperezko diruarenak, loteria-txartelenak, metro-txartelenak edo telefono-txartelenak, besteak beste. Ekoitzi ziren unean balioesten ez ziren materialak direnez, Museoan ere ez ziren hertsiki bildu. Hainbat erosketari esker eta, nagusiki, Prado Museoaren adiskideen dohaintza eskuzabalei esker, *ephemera* materialen multzo zabal bat osatu eta prozesatu ahal izan da, eta horien bidez Museoari eta bertako bildumei buruzko ezagutza zabaldu ahal izan da urrutiko publiko anitzen artean. Dokumentuak digitalizatu ostean, Prado Iragankorra mikro webgunea eratu zen, zeinak modu uniformearen eskaintzen dituen material desberdinei buruzko metadatuak, zer kudeaketa-sistematan sortu diren kontuan hartu gabe. Orri nagusian material-motaren arabera antolatutako bilduma batzuk daude, informazio testual eta guzti, eta dokumentu guztietara sar daiteke, baita horien irudi digitalak deskargatu ere. *Prado Iragankorrak* gaiaren, erakundearen, pertsonaren edo dokumentu-motaren arabera sailka daitezkeen emaitzak ematen dituen bilatzaile orokor bat du, eta Interneteko erabiltzaile ooren eskura jartzen ditu Prado Museoaren historia grafikoa osatzeko aukera ematen duten lan inprimatuak.

Urriaren 22an, osteguna

13:00 -13:45

Liburutegia, komisariotza-eragile modura. Arte garaikideari buruzko proiektu digitalak

Paz Fernández Fernández-Cuesta. Juan March Fundazioko Liburutegi-ko zuzendaria

Liburutegiak erakunde organikoak dira, eta, hortaz, krisiak dituzte, gaixotu egiten dira, ezjakintasunean eta malenkonian jausten dira, eta zaindu eta senda ditzagun erregutzen digute. 2008an, Juan March Fundazioko Liburutegia, 1975ean sortua, ohartu zen egungo baldintzek, inguruneak, teknikak, profesionalen prestakuntzak edo ikertzaileen eskakizunek ez zutela zerikusirik liburutegia sortu zenekoekin, garai hartan *digital edo birtual* moduko hitzek zientzia fikziozko film batetik ateratakoak baitziruditen. Hori ikusirik, gogoeta-, aldaketa- eta birdefinizio-prozesu sakon eta zaindu bat abiarazi zuen, urte batzuk igaro arte amaitu ez zuena.

Antolamenduaren ikuspegitik, gaur egun, Juan March Fundazioko Liburutegia ikerketa sustatzeko zentro bat ere bada, erreferentzia-zerbitzuan lehenasuna ematen dielako ikertzaileei, eta liburutegi barruan ezagutza digitala antolatzeko ardatz berri bat garatu duelako erakunde osorako. Ardatz hori finkatzearen ondorioa datu digitalen laborategi bat (DataLab) izan da; bertan, Liburutegiak eta Fundazioko beste sail eta jarduerak sortzen duten eduki digitala aukeratu eta aztertzen da.

Hortaz, Liburutegiak, ordura arte arreka kanpoko erabiltzaileengan jarri izan zuenak, bere ikuspegia zabaldu zuen, eta Fundazio osoak informazio espezializatuari, komisariotzari eta analisiari begira zeuzkan beharrei ere erantzuten hasi zen, zerbitzu horizontal eta zeharkako bihurtuta. Horrek ikusgaitasuna eta posizio estrategikoa eman dizkio erakundearen barruan.

Zeharkakotasun hori egia bilakatu da Liburutegiko arte garaikidearen eta komisariotza-ikasketen atalean, zeina antolatu baita Fundazioko interes bereziko helburuei eta gaiei erantzuteko, aldi berean lan eginez erakusketen zuzendariarekin, komisarioekin eta koordinatzaileekin, baldintza eta irizpide komunak adostu ditzaten, erabilgarriak izango direnak bai kanpoko erabiltzailearentzat, bai barne-ikertzaileentzat. Lankidetzan horretan, Liburutegia komisariotza-eragile izan da, bai azalpenezko garapeneterako dokumentu-bilaketan (edukien komisariotza), bai normalizazio eta komisariotza digitalean, zeina baita ezinbestekoa proiektu digitalak eraikitzeke.

Komisariotza-harreman horren adibide batzuk dira Juan March Fundazioaren *Todos los catálogos de exposiciones desde 1973* atari digitala, Interneten eskuragarria, edo ikerketaren sustapena erakusketa-proiektuetan. Azken horren adibide da Madrilen eta Malagan *Genealogías del Arte, o la historia del arte como historia visual* izenburupean egindako erakusketa, zeinetarako eraldatu baitzen 1936an New Yorkeko Museum of Modern Art museoan egindako *Cubism and Abstract Art* erakusketaren katalogoa, datu aztergarri bihurtuta, Alfred H. Barr MoMako zuzendariak arte garai-kidearen sortzailatzat aukeratu zituen artisten azterketa kualitatiboa eta harremanezkoa egin ahal izateko.

16:15 -17:00

Liburutegia ikerketarako ezinbesteko euskarri Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatean

Teresa Malo de Molina. Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko Liburutegi Zerbitzuko zuzendaria

Ikerketaren sustapena Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko liburutegiaren funtsezko ardatz estrategiko bat da. Pertsonal akademikoari egindako nazioarteko inkesta baten emaitzetatik abiatuta, garatutako sustapen-ekintza nagusiak deskribatuko dira aurkezpen honetan. Zehaztasunez azalduko da nola jarri zen martxan Humanitate Digitalen garapenarekin lotutako ekimen berri bat. Hiru etapa bereizten ziren ekimen horretan. Lehenengo etapan, liburutegian jada bazeuden tresnak erabiltzen hasia zen abiapuntua, baliabide espezializatuak kudeatu eta hedatzeko Libguides tresna erabiltzea, nagusiki. Ikertzaileen eskaerek gora egin zutenean, liburutegiak beste tresna batzuk sortu behar izan zituen, proiektu desberdinen eskakizunetara egokituak. Bigarren etapa hori arrakastatsua izan bazen ere, argi zegoen metodologia hori proiektu berri bakoitzera aplikatzeko datu-base eta mapa espezifikoak garatu behar zirela, eta horrek garapen-lana eta etengabeko mantentze-lana zekartzan. Hori zela-eta, liburutegiak hainbat datu-base sortzeko aukera emateko bezain moldakorra izango zen tresna bat bilatzea erabaki zuen, datu-base horiek ikerketa-taldeen behar desberdinei erantzun ahal izan ziezaioten. OmekaS plataforma aukeratu zuten, aukera ematen duena honako hauek egiteko: instalazio optimizatu batekin webgune ugari sortu eta administratzeko; datu ireki lotuak (Linked Open Data) dituzten elementuak argitaratzeko; baliabide-txantilo estandarizatuekin elementuak deskribatzeko; webguneen funtzionaltasuna hedatzeko, baliabideak mapatu, bildu, inportatu eta konektatzen dituzten

moduluekin, eta webgune bakoitza edozein pantaila-neurritara egokitu daitekeen gai desberdin batekin diseinatzeko. Hortik abiatuta, plataforma hori darabilten proiektuak aurkeztuko dira, eta, amaitzeko, ikertzaileek eta liburuzainek elkarrekin nola lan egiten duten eta elkarlan horrek zer onura dakartzan deskribatuko da.

17:00 -17:45

Eduki bisualak antolatzeko eta kudeatzeko eredu berriak gizakia-makina elkargunean

Nuria Rodríguez Ortega. Malagako Unibertsitateko Artearen Historiako katedraduna

Oinarritzat hartuta Katherine Haylesek *Unthoughts* lanean (2017) proposatutako mihiztaketa kognitiboaren kontzeptua, zeina erabiltzen baituen kognizio-modu gizatiar eta ez-gizatiarren arteko hibridazioa gure une historikoaren faktore bereizgarri gisa deskribatzeko, aurkezpen honek elkarketa horietatik sortzen diren erregimen antolatzaile berriei buruz gogoeta egingo du. Era berean, aztertuko du artxiboa ez den zer beste eredu kultural izan litekeen egokia forma kronotropiko linealetatik eta sailkapen-sistema tradizioaletatik urruntzen diren modalitate sortu berri horien berri emateko. Horretarako, adibide gisa erabiliko dira iArtHis_Lab (UMA) ikerketa-taldearen Barr X Inception CNN proiektua (2020) garatzean planteatutako gogoetetako batzuk (proiektu horrek dimentsio handiko eremu bisual bilakatu du Alfred J. Barr-en 1936ko diagrama ezaguna, sare neuronal konboluzionalen bidez), baita Malaga Fundazioko Picasso Katedraren (UMA) baitan Picassoren *Álbum 7* lanari buruz gauzatutako ikerketetako gogoeta batzuk ere (ikerketa horietan, eduki bisualen antolamendua giza ikuskapen okularraren eta ikusmen-algoritmoen ordenagailu bidezko aplikazioaren arteko interakzio-prozesu batetik sortzen da).

Urriaren 23an, ostirala

9:30 -10:15

MACBA Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko Artxiboaren Biltegi Digitalaren katalogoa

Paloma Gueilburt. MACBA Biltegi Digitaleko teknikaria

MACBAko artxiboa 2007an ireki zuten, Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa sortzean. Haren helburu nagusia da arte garaikidean espezializatutako ondare dokumentala gorde eta zabaltzea, museoak sustatutako ikerketa, eztabaida eta hedapena mesedetuko dituen. Eginkizun hori betetzeko, artxiboak artista-liburuen eta artxiboko funtsen bilduma bat du. Ikerketa eta Dokumentazio Zentroak liburutegi bat ere badu, eta ikerketarako laguntza-programak nahiz museoeko interes-lerroekin lotutako erakusketak eskaintzen ditu erregulariki.

Hasieran, lehenetsuna eman zitzaion artxiboak kontzeptualizatzeari, funtsak eskuratzeko politika sortzeari, funts dokumentalak lortzeari eta Museum-Plus datu-basearen bidez katalogatzeko arauak eta berezko lan-sistema bat finkatzeari. Barneko lan-teknikoa egiteko eta MACBAko bildumen kudeaketaren barruan protokolo bereizgarriak ezartzeko lehen etapa horren ostean, eduki digitalen kontserbaziora eta edukiak zein metadatuak hedatzeko tresnen hobekuntzara bideratu da artxiboaren lana azken urteetan.

Eduki digitalen kontserbazioaren eta hedapenaren arloan, 2013an abian jarri zen MACBA Biltegi Digitalaren proiektua, Consorci de Serveis Universitaris de Catalunya (CSUC) erakundearekin lankidetzan. Proiektu hori DSpace kode irekiko programan eta Dublin Core metadatuaren erudian oinarritzen da. 2019az geroztik, biltegiko eduki asko online kontsulta daitezke (<http://repositori.macba.cat>), jabetza intelektualaren legeek ezarritako mugak kontuan hartuta.

Biltegia zeharkako proiektu bat da, eta helburutzat du formatu digitalean sortu edo digitalizatu diren MACBAren Bildumako artelanak (bereziki ikus-entzunezkoak) eta dokumentuak kontserbatzea. Artxiboak, Biltegiaren bitartez, museoak bere sorreratik sortu dituen ia testu-dokumentu, argazki eta ikus-entzunezko guztiak digitalizatu eta jarri ditu publikoaren eskura; dokumentu horiek MACBAren Funts Historikoaren parte dira, beste dokumentu askoren artean.

MACBAren webguneak, 2019aren amaieran aurkeztuak, artxiboko bildumak eta funtsak beste modu batera ezagutzeko aukera berriak eskaini ditu. Webguneaz arduratzen den taldearekin lankidetzan, dokumentuak bilatzeko katalogoa birdiseinatu da, eta arte garaikidearekin lotutako artisten, galerien eta bestelako eragileen artxiboko funtsen sailkapen-taulen bidez nabigatzeko sistema bat sortu da.

MACBA Biltegi Digitala txertatuta dago webgune berrian, zeinak Biltegian erabilgarri dauden eduki digitalekin erlazionatzen baititu artelanen fitxak, jarduerak, erakusketak eta artxiboko erregistroak. Artxiboak publikoari eskaintzen dizkion baliabideek egoki funtziona dezaten, ezinbestekoa da etengabe berraztertzea katalogazio-arauak eta dokumentuak aurkitzea ahalbidetzen duten sarrera-puntuak. Dokumentuen eskuragarritasunari dagokionez, artxiboa gako-hitzak aztertzeo prozesuan dago gaur egun. Proiektu horri hainbat unetan heldu zaio, baina oraindik bide luzea du aurretik.

10:15 -11:00

Reina Sofia Museo Nazional eta Arte Zentroaren Artxibo Nagusia (2008-2018): gaur egungo antolaketa eta aurrera begirako planteamenduak

Beatriz Fernández Rodríguez. Madrilgo Reina Sofia Museo Nazional eta Arte Zentroko Artxibo Nagusiko arduraduna

Reina Sofia Museo Nazional eta Arte Zentroaren Artxibo Nagusia 2008an jarri zuten martxan, bertan lanean hasi zirenean Artxibo, Liburutegi eta Museoetako Laguntzaileen Kidegoko profesionalak. Liburutegi eta Dokumentazio Zentroan txertatutako zerbitzu gisa antolatuta dago, eta erakundeko sailek sortzen duten dokumentazioa kudeatzeaz arduratzen da.

Funtzio nagusizat du Museoak bere jardunean sortu eta metatzen duen dokumentazioa biltzea, antolatzea, deskribatzea eta kontserbatzea, baita herritarren, ikertzaileen nahiz erakundearen beraren eskura jartzea ere, eta bi helburu lortu nahi ditu horrekin: batetik, 19/2013 Legeak erakunde publiko guztientzat ezarritako gardentasuna bermatu nahi du, eta bestetik, Reina Sofia Museo Nazionalaren memoria kontserbatu nahi du, mundu osoan erreferentziatzeko erakundea baita arte garaikidearen arloan.

Aurkezpen honen bidez, erakunde publiko edo pribatu ororentzako funtsezko zerbitzu gisa aurkeztu nahi da artxiboa, eta ezagutzera eman nahi

dira haren jatorria, funtsak, funtzionamendua, antolakuntza eta egungo nahiz etorkizuneko planteamenduak, nagusiki.

Reina Sofia Arte Zentroa Museo Nazional gisa eratzeko emandako 1988ko 535 Errege Dekretuan lehen aldiz aipatu zen artxibo-funtzioa, ikuspegi bi-koitzarekin:

- Dokumentazio artistikoko artxiboa, Kontserbazio, Ikerketa eta Hedapeneko Zuzendariordetzaren mendekoa.
Dokumentazio artistikoaren artxiboa, artelanak erregistratzeko unitateak gordetzen duena, funtsezkoa da museorako. Bertan biltzen dituzte bildumako artelanen inbentarioa, eskuratzeko-espedituentzako (dohaintzak, erosketak, legatuak...) eta kanpoko erakundeetara eramandako artelanen zerrendak. Lehen urratsak egin dira sail horretako funtsak antolatzen hasteko.
- Artxibo administratiboa, Museoko Gerentziaren mendekoa.

Egungo lan-ildoan helburu nagusia hedapena indartzea da, bai barne-hedapena (Museoko langileak), bai kanpo-hedapena (ikertzaileak, ikasleak, herritarrak...). Horretarako, webguneko edukiak aberastu eta eguneratzen dira, Liburutegi Digitala proiektuak artxiboko funtsak digitalizatzen ditu eta funtsen deskribapenak sailkapen-taula funtzional batera egokitzen dira, Dokumentu Administratiboak Kalifikatzeko Goi Batzordeak 2017ko abenduaren 13an ezarritako jarraibide batzuen arabera.

Garapen-fasean dagoen azken ekimenetako bat funts berezien aurkezpena da, hala nola arkitekturakoena. Horiek bereziak dira bai formatuagatik, bai balio historikoagatik, eta data esanguratsuetan antolatutako ibilbideen bidez eman nahi dira ezagutzera (Arkitekturaren Astea 2020 edo Artxiboaren Nazioarteko Eguna).

Beraz, artxiboak *marketin plan* bat garatzen du, helburutzat harturik hedapenaren kontzeptua aldatzea: alde batera utzi nahi du aurrez aurreko hedapen tradizionala, jardunaldi irekietan, bisita gidatuetan, praktika-hi tzarmenetan eta horrelakoetan oinarritzen dena nagusiki, eta proiektzio birtualago bat lortu nahi du, kontsultak errazago eta bizkorrago egiteko aukera emateaz gain, Museoko langileei ulertaraziko diena zer-nolako potentziala duen artxibo-zerbitzuak. Aukera horrek ikusgaitasuna eta posizionamendua emango dizkio artxiboari erakundearen barruan, eta eguneroko funtzioak modu eraginkor eta efizienteagoan kudeatzeko funtsezko tresna izango da.

Urriaren 23an, ostirala

11:00 -11:45

Web-artxiboa: lege-gordailua aro digitalean

Mar Pérez Morillo. Prozesu eta Zerbitzu Digitalen Dibisioko zuzendaria (Espainiako Liburutegi Nazionala)

1716an, Espainiako Liburutegi Nazionala (orduan Errege Liburutegi Publikoa) sortu zenetik lau urte besterik igaro ez zirenean, Filipe V.a erregeak, liburutegiaren sortzaileak, inprimatzen zuten ororen kopia bat Errege Liburutegian uztera behartu zituen inprimatzaile guztiak, errege-pribilegio baten bidez. Hori da egungo lege-gordailuaren aurrekaria. Lege-gordailuaren araudi modernoa 1957an ezarri zen, Lege Gordailuaren Dekretuarekin.

Lege-gordailua liburutegi nazionalak (gordailuzain nagusiak) herrialde bateko ondare dokumentala bildu eta gordetzeko erabiltzen duten tresna da.

2011n, hain aldatuta zegoen gure herrialdeko errealitate editoriala, ezen sakonki aldatu behar izan baitzen Espainiako Lege Gordailuaren araudia; horrela jaio zen 23/2011 Legea, uztailaren 29koa, lege-gordailuari buruzkoa.

Lege horretan aintzat hartu zen, lehen aldiz, lege-gordailua behar zutela «edozein euskarritan argitaratutako dokumentu elektronikoek, teknikak unean-unean ahalbidetzen duenaren arabera, eta ezin badira libreki eskuratu Internet bidez» (4, 3, n art.) eta «webgune finkagarri edo erregistragarriek, haien edukia aldatu egin badaiteke denboran zehar eta une jakin batean kopiatua izan badaiteke» (4, 3, n art.).

Izan ere, urte dezente ziren ondare dokumentaltzat daukaguna ez zela argitaratzen soilik euskarri fisikoan. Internet argitaratzeko euskarri bilakatu zuten ari zen, eta oso ezaugarri bereziak zituen, hala nola bitartekoaren iragankortasuna, eta lausotu egiten zituen ordura arte finkatuta zeuden eta argiak ziren hainbat elementu, egiletzaren, edizioaren eta formatuaren kontzeptuak eta argitalpenaren lokalizazioa, besteak beste.

2003an, UNESCOk, aldaketa horiek guztiak ikusirik, ondare digitala kontserbatzeko jarraibideak argitaratu zituen (*Pautas para la preservación del patrimonio digital*), eta memoriaz arduratzen ziren erakundeak premiazko neurriak hartzera presatu zituen, online ondare dokumentalaren galera konponezina ekiditeko.

1996an, Internet Archive, San Frantziskon (Kalifornia) kokatuta zegoen irabazi asmorik gabeko fundazio bat, «Interneteko guneen liburutegi digital» bat sortzen hasi zen. UNESCOk jarraibideak argitaratu zituenean, munduko liburutegi nazional nagusiak onartzen hasi ziren beraiei zegokiela sareko dokumentazioa ondare dokumentalaren parte gisa kontserbatzeko zeregina. Orduan, Iparramerikako Kongresuko Liburutegiak, Britainia Handiko Liburuteegiak eta Frantziako Liburutegi Nazionalak, besteak beste, Interneteko Kontserbaziorako Nazioarteko Partzuergoa (IIPC) sortu zuten Internet Archive fundazioarekin batera. Partzuergoaren helburu nagusia Interneteko ezagutza eta informazioa bildu, gorde eta eskuragarri jartzea da.

Espanian, Kataluniako Liburutegia (2005ean) eta Euskadiko Ondarenet (2007an) izan ziren web-artxiboen aitzindariak.

Espainiako Liburutegi Nazionalak 2009an jarri zuen martxan Espainiako Webaren Artxiboa izeneko proiektua, eta *online argitalpenen lege-gordailua arautzeko uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretua* argitaratu zutenean, lege-gordailuaren eraginpean geratu zen. Proiektu horri esker, ondareztat jo daitekeen Interneteko 650 TB informazio dago jada gordeta. 2009tik gaurdaino, proiektuak bilakaera handia izan du azpiegitura teknologikoari, kudeaketari, aukeraketa-irizpideei eta partaidetzari dagokienez. Gainera, lankidetzaproiektu bat da, eta autonomia-erkidego gehienek parte hartzen dute bertan; horien kontserbazio-zentroek (lege-gordailuaz arduratzen dira dagokien eremuan) aktiboki parte hartzen dute asmo handiko proiektu dokumental honen eraikuntzan.

12:15 -13:00

Xcèntric artxiboa. Zine esperimental nahieran, CCCBn

Gloria Vilches. Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroaren (CCCB) zine esperimentaleko Xcèntric programaren arduraduna)

Xcèntric Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroaren zinema-programa egonkorra da 2001az geroztik, eta helburutzat du abangoardiako zinema, zinema esperimental eta egile-zinema ezagutzera ematea. Proiektuak elkarri lotuta dauden hiru ildo ditu: urtean behingo proiektio-zikloa Zentroaren entzunaretoan, hezkuntza-programa bat (tailerrak, ikastaroak eta hitzaldiak) eta artxibo digitala, aurkezpen honen ardatza.

Xcèntric Artxiboa 300 bat izenburekin jaio zen, *That's Not Entertainment. El cine responde al cine* erakusketaren baitan (CCCB, 2005), ibilbi-

dearen amaieran erakusketan aipatuta zeuden lanetako batzuk osorik kontsultatzeko aukera emateko irtenbide gisa. Erosketen eta lagapenen bidez, 15 urteotan handituz joan da artxioboaren katalogoa, eta gaur egun mila izenburu inguru ditu. Kopurua handitzen eta gutxien ordezkatutako arloak osatzen joan nahi dugu. Hainbat lekutan egon ostean, gaur egun film horien kontsulta, aurrez aurrekoa eta doakoa, CCCBren -1 solairuan egiten da, hainbat eremu dituen 80 m²-ko espazio batean, non gauzatzen diren, halaber, hainbat jarduera publiko (bisita iruzkinduak, aurkezpenak, tailerrak...).

Aurkezpen honetan, gure katalogoa zer motatako filmek osatzen duten eta horiek nola aukeratzen diren azalduko dugu, baita kontsulten funtzio-namendua eta horiek errazteko ezarri ditugun hainbat estrategia ere. Era berean, artxiiboari lotuta aldi berean garatu ditugun jarduerak ere aipatuko ditugu, hala nola espezialistek idatzitako saiakeren argitalpena edo programa didaktikoa, edo artxiboko edukiak zabaltzeko proiektu berriak, beste kultura-eragile batzuen inplikazioa dakartenak, Zine Kritikaren eta Idazketaren Kataluniako Elkartearena (ACECC), besteak beste. Artxibotik CC-CBko beste proiektu batzuekin edo tokiko beste ekimen batzuekin (jaialdiak, proiektu artistikoak...) sinergiak sortzeko nola lan egiten dugun ere azalduko dugu, eta artxiboa ezagutzera emateko eta publikoa erakartzeko gauzatu ditugun ideiak aipatuko ditugu. Azkenik, urte hauetan gainditu behar izan ditugun arazoez arituko gara, baita etorkizunerako identifikatu ditugun erronkez ere; azken horiek aldaketa teknologikoekin edo online ikuskatzeen eskaintza berriarekin lotuta daude, nagusiki.

13:00-13:45

Gizarte-sareetako irudi analogikoari buruzko gogoetak: dokumentu likidoa eta artxibo iragankorrak. @foto_historias proiektua

Alicia Parras Parras. UCMko Informazio Zientzien Fakultateko Dokumentazio Unitateko irakaslea eta PaDem (Patrimonio Digital en Medios) ikerketa-taldeko kidea

Duela urte gutxi batzuk arte, oroitzapen bat argazkian kontserbatzeko ezinbestekoak ziren makina jakin batzuk eta prozesu kimiko batzuk, azken emaitzatzat dokumentu ukigarri bat ematen zutenak: argazkia. Oroitzapenak gordeta geratzen ziren –ezinbesteko- albumetan, eta horiek familia baten une onenen berri ematen zuten, batik bat: jaiotzak, ezkontzak, bidaiak edo erretratuak. Alabaina, teknologia berrien etorrerak, Internet nonahikoaren abiadura garaizina, erosotasunak, berehalakotasunak eta

lainoko biltegitratze-espazio mugagabeek argazki digitalaren masifikazioa ekarri dute, eta apurtu egin da familiako albumaren tradizioa. @foto_historias_ proiektuaren xedea da elkarriketa bat ezartzea argazki-albumetako historien eta argazkiek sare sozialetan, zehazki Instagramen, duten likidotasunaren artean, eta ikusleari gogoeta eginaraztea, irudiek eremu analogiko eta pribatuan duten biziraupenari buruz, batetik, eta lainoko biltegitratze ikusezinari buruz, bestetik.

Proiektu jaió berri honek izen bereko beste ekimen bat du jatorrian, 2017an sortua fanzine-formatuan. Oraingoan, baina, jolasa ezarri nahi zen argazki analogiko zehatzen eta irudiak proiektuko parte-hartzaileari fikziozko narrazioaren ikuspegitik iradokitzen zionaren artean. @foto_historias_ proiektuaren kasuan, oinarrizko bi desberdintasun ditu aurreko proiektuarekiko: analogikoa eta digitala denaren arteko elkarriketa, pribatua eta publikoa denaren artekoa, eta albumeko argazki batetik abiatuta istorio pertsonal bat edo familia-istorio bat oroitzearen garrantzia.

Premisa horietatik abiatuta, galdera hauek egiten ditugu: zer da dokumentu likidoa eta artxibo iragankorra? Erabil daiteke Instagram argazki analogikoak zentzu hertsian berreskuratu eta biltegitratzeko? Zer balio sozial erants dezake albumeko argazkia Instagramera eramateak?

Egilearen lan akademikoa PaDem ikerketa-taldearen ekoizpen intelektua-laren baitan kokatzen da. Talde horren jarduerak eta kezkek zerikusia dute hedabideetako ondare digitalaren kudeaketarekin, eta ibilbide-orri bat ezarri nahi dute, akademiatik laguntza eskaintzeko hedabideei eta beren funts analogiko zein digitalak (idatziak, soinuzkoak eta ikus-entzunezkoak) nola kudeatu erakusteko.

Gako-hitzak: argazki analogikoak; argazki-albumak; argazkiak sare sozialetan; dokumentu likidoak; artxibo iragankorrak.

Elena Roseras Carcedo Artium, Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoko Liburutegi eta Dokumentazio Zentroko arduraduna da.

Geografia eta Historiako lizentziaduna da (Euskal Herriko Unibertsitatea), baita Dokumentazioko lizentziaduna ere (UOC, Universitat Oberta de Catalunya), eta bi master ere baditu, Bibliotekonomiakoa (UPV/EHU) eta Informazio eta Ezagutzaren Gizartekoa (UOC).

Sancho el Sabio Fundazioan eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburu eta Liburutegi Zerbitzuan lan egin du.

Artium Museoko taldekide gisa, kultura eta arte garaikidearen arloko informazioaren eta ezagutzaren kudeaketan lan egiten du. Ildo horretan, ikerketa eta azterketa artistikoa sustatzera bideratutako proiektuak bultzatzen ditu; Artiker planifikatu eta zuzentzen du, Museoko ondare dokumentala zabaltzeko tresna, baita DokuArt eduki-kudeatzailea ere; 2002az geroztik, Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak antolatu eta zuzentzen ditu, bi urtean behin, eta hainbat erakusketa bibliografikoren komisarioa izan da.

Berrikuntzaren kudeaketarekin eta informazio- nahiz dokumentazio-zerbitzuekin lotutako bi argitalpen koordinatu ditu Trea argitalletxearentzat, baita Artium Museoak argitaratutako beste hiru argitalpen ere, Dokumentazioko Topaketen hitzaldiak biltzen dituztenak. Hainbat artikulu idatzi ditu argitalpen espezializatuetan, eta hizlari gisa parte hartu du nazioarteko zenbait biltzarretan.

Itziar Arrieta Salinasek Ingeniaritza Informatikoko titulua eta Informazioaren Teknologietako masterra ditu, Nafarroako Unibertsitate Publikoan lortuak, bi-biak. Sistema informatikoetako goi-mailako teknikaria da Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioan, eta gaur egun Proiektuen Ataleko burua da arlo hauetan: Ekonomia eta Enpresa Garapena, Herritarrekiko Harremanak, Kultura eta Kirola, eta Enplegua. Nafarroako Kultura Zuzendaritza Nagusirako eta administrazio horretako beste unitate batzuetarako informazio-sistemak garatu eta ezartzeko proiektuen arduradun gisa parte hartzen du.

Juan José Asa Mina CONASA enpresako kidea da, eta IKT proiektuen aholkularia eta kudeatzailea da, Administrazio Publikoe-

tan espezializatua. 2005az geroztik, Nafarroako Gobernuan lan egin du, Telekomunikazio eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean, eta Foru Administrazioako sailen behar teknologikoei erantzuten die, bereziki kultura-arlokoiei.

M^a Camino Barcenilla Tirapu Humanitateetan lizentziatu zen (kultura-kudeaketako ibilbidea) Nafarroako Unibertsitatean, eta Filosofia eta Letretako doktore-titulua ere eskuratu zuen unibertsitate berean, literatura konparatuko programan. Horrez gainera, kultura-kudeaketako (musika, antzerkia eta dantza) masterra ere egin zuen, Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusiak (SGAE) eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak eskainia. Nafarroako Gobernuko funtzionarioa da, eta gaur egun Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusiko Baliabideen eta Garapen Estrategiakoaren Ataleko burua da, eta Mezenasgo Batzordeko kidea.

Asunción Maestro Pegenaute Geografia eta Historiako lizentziaduna da (Zaragozako Unibertsitatea), baita Dokumentazioko lizentziaduna ere (Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea). Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean lan egin du 1984az geroztik, lehenengo liburutegi publiko batean, eta ondoren, bibliobus bat martxan jartzen eta hainbat zeregin egiten irakurketaren sustapenean, liburutegien kudeaketan eta zerbitzu informatikoetan. 1996tik 2000ra bitarte, Liburutegi Publikoen Sarearen Bulegoko burua izan zen, eta 2015az geroztik Nafarroako Gobernuko Liburutegi Zerbitzuko zuzendaria da.

Oihana Aranburu Balerdi Xenpelar Dokumentazio Zentroan ari da dokumentazio lanetan 1998 urtez geroztik. Bertsolaritzaren ikus-entzunezko ondarearen dokumentazio egitasmoaren antolaketan aritu da nagusiki, grabazioen bilketa saretzen, ikus-entzunezko dokumentuen digitalizazio eta katalogazioan eta bertso bildumaren tratamendu eta katalogazioan. Egun Xenpelar Dokumentazio Zentroko koordinatzaile da. Jasotako formazioa, besteak beste: Informazioa Zientzietan lizentziatura (EHU, 1998), Komunikazio Enpresa Multimedien Egile eta Kudeatzaile unibertsitate masterra (EHU, 2001), Euskal Kultur Transmisioa aditu titulua (Mondragon Unibertsitatea, 2015) eta Ikus-entzunezko Dokumentalista eta Film Researcher espezializazioa (UOC, 2017).

María Luisa Cuenca Artearen Historian lizentziaduna da (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa). Artxibozain, Liburuzain eta Arkeologoen Kidegoko profesionala da, Liburutegien atalean, eta Espainiako Liburutegi Nazionalen lan egin zuen 1990etik 2000ra bitarte. Lehenengo, Marrazki eta Grabatuen Zerbitzuan aritu zen, eta *Mariano Fortuny Mársal*, *Mariano Fortuny Madrazo* (1994) erakusketaren komisarioetako bat izan zen, eta hainbat katalogotan kolaboratu zuen: *Estampas de Goya en la BNE* (1996), *Ydioma Universal* (1996), *El amor y la muerte* (2001). Ondoren, Espainiako Liburutegi Nazionalako erakusketak eta jarduera kulturalak antolatzeaz arduratu zen, Hedapen Saileko buru gisa (2003-2012). Madrilgo Udalean, Liburutegi eta Artxiboetako zuzendariorde nagusia (2012-2013) eta Liburutegi, Artxibo eta Museoetako zuzendari nagusia (2013-2015) izan da. 2017az goerotik, Prado Museo Nazionalako Liburutegi, Dokumentazio eta Artxibo Saileko burua da. Bertan, liburu bitxien bildumaz, liburutegi nahiz artxiboetako bildumen eta zerbitzuen kudeaketaz eta horiekin lotutako web-garapenez arduratzen da, besteak beste. Marrazkiekin, estanpekin, liburu zaharrarekin eta garatu duen gainerako jarduera profesionalarekin lotuta, hainbat jardunaldi eta biltzarretan parte hartu du, hainbat artikulu idatzi ditu eta ikastaroak nahiz hitzaldiak eman ditu. 2019an, Liburutegiko marrazki-liburuxken bildumaren zati garrantzitsu bat ikusgai jarri zuen *El maestro de papel: cartillas para aprender a dibujar de los siglos XVII a XIX* erakusketaren komisarioetako bat izan zen, baita *El Museo del Prado en los sorteos de la Lotería Nacional* ibilbidearena ere.

Paz Fernández Fernández-Cuesta Historiako lizentzia eta Informazio eta Dokumentazioko masterra eskuratu zituen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Dokumentazio eta Informazio Zientifikoaren Espainiako Elkartearen (SEDIC) egiaztapen profesionaleko prozesua gainditu zuen, baita Madrilgo Erkidegoko Unibertsitateko Irakasleen Ebaluazio Agentziarena ere. Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko irakaslea izan zen 2001etik 2010era bitarte, eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Dokumentazio Fakultatekoa. Estatuko funtzionario gisa, F.M. Pareja Liburutegi Islamikoan (Kanpo Gaietako Ministerioa) aritu zen lanean 1974tik 1993ra bitarte, eta eszedentzia eskatu zuen, Nazioarteko Harremanen Espainiako Zentroko dokumentazio-zentroa sortzeko. 2001ean, lanean hasi zen Juan March Institutuan, Gizarte Zientzietako Ikasketa Aurreratuen Zentroan; 2008az goerotik, bertako liburutegiko zuzendaria izan da, baita Juan March Fundazioko liburutegikoa ere.

Partaidetza zabala izan du mintegi eta biltzarretan, eta haren interes-arloek beti izan dute lotura lanbidearekin, zuzendaritzarekin eta haren balioekin. SEDIC elkarteak bere Kode Etikoa idazteko osatu zuen etika profesionaleko lantaldearen koordinatzailea izan zen; Artxibo, Bibliotekonomia, Dokumentazio eta Museo Elkarteen Espainiako Federazioak (FESABID), gaur egun espainiar profesionalak Liburuzainen Elkarteen Nazioarteko Federazioan (IFLA) ordezkatzan dituenak, kode etiko hori darabil.

Bibliotecas y personas liburua (Gijon: TREA, 2005) idatzi du, eta hainbat proiektu digital jaso ditu azterlan monografikoetan, baita liburutegietako zeharkako datu-zerbitzuen garrantzia ere. Duela gutxi «Publicación de los valores en las bibliotecas universitarias españolas» artikulua argitaratu du Ana Reyes Paciosekin batera (*El Profesional de la Información*, 5. zk., 2019), eta «The Fundación Juan March DataLab: a data science unit within a research support Library» artikulua, Luis Martínez-Urbe eta Fernando Martínezekin batera, *Data Science in the Library* liburuan (London: CILIP, prentsan).

Teresa Malo de Molinak Filologia Hispanikoko lizentzia lortu zuen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. 1983an, liburutegiko laguntzaile gisa hasi zen lanean, Salamancako Unibertsitatean. 1985etik 1990era bitarte, Urrezko Mendea Ataleko burua izan zen Liburutegi Nazionalean. Gero CSICeko Liburutegien Koordinazio Unitatean sartu zen, Koordinazio Profesionaleko Unitateko buru gisa. 1998an, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatean hasi zen lanean, Liburutegiko zuzendariaren laguntzaile gisa, eta 2005eko ekainean Espainiako Liburutegi Nazionaleko zuzendari tekniko izendatu zuten. Bertan, proiektu garrantzitsuak jarri zituen martxan, modu aktiboan parte hartu zuen nazioarteko foroetan eta Europako Liburutegi Digitala proiektua garatu zuen. 2007ko azaroan, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatara itzuli zen, Giza Baliabide eta Antolakuntzako gerentorde gisa. 2011z geroztik, Liburutegi Zerbitzuko zuzendaria da unibertsitate horretan. Horrez gainera, gaur egun beste kargu hauek ere betetzen ditu: Sarbide Irekia azpitaldeko koordinatzailea da, REBIUN-Unibertsitateko Liburutegien Espainiako Sarearen III. Plan Estrategikoko II. ildoko lantaldearen barruan; *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Legeko 37. Artikulua*ren (*Sarbide Irekiko Hedapena*) ezarpenerako *Jarraipen Batzordeko* kidea da (FECYT-Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak koordinatzen duen batzordea), baita Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziako (CRUE) *Open Science Taldeko* kidea ere.

Eskarmentu handia du irakaskuntzan, hainbat urtez aritu baita irakasle laguntzaile gisa Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatean eta profesionalentzako formakuntza-jarduera askotan kolaboratu ohi baitu. Era berean, hainbat argitalpen eta artikulu idatzi ditu espainiar zein atzeritar aldizkarietan, eta txostenak eta komunikazioak aurkeztu ditu zenbait topaketa profesionaletan.

Nuria Rodríguez Ortega Artearen Historiako katedraduna eta Artearen Historiako Saileko zuzendaria da Malagako Unibertsitatean, eta iArtHis_Lab zuzentzen du bertan, ikerketa eta formakuntzako laborategi bat, non artearen historia eta kultura artistikoa lantzen diren ikuspegi digital eta konputazional batetik. 2018az geroztik, Malaga Fundazioko Picasso Katedrako zuzendariordea ere bada, eta Picassoren ekoizpen grafikoa adimen artifizialeko teknologien bidez aztertzekeo proiektua koordinatzen du bertan. 2017az geroztik, Humanitate Digital Hispanikoen Nazioarteko Elkarteko (HDH) presidentea da. 2007. urtetik 2013. urtera bitarte Malagako Udal Ondarearen Museoko zuzendariordea izan zen.

Paloma Gueilburz Artearen Historian eta Bibliotekonomia eta Dokumentazioan lizentziaduna (Bartzelonako Unibertsitatea). Dokumentalista gisa lan egin du argitalpenaren arloan, eta kulturakudeatzaile gisa, dantzaren arloko egitura independenteetan. 2014az geroztik, Bartzelonako Arte Garaikidearen Museoko (MACBA) artxiboko taldeko kidea da, eta MACBA Biltegi Digitalaren proiektua koordinatzeaz arduratzen da. Gaur egun, biltegiko teknikaria izatez gain, artxiboak gordeta dituen eta artistek zein arte-kolektiboek eman dituzten materialen digitalizazioa katalogatu eta koordinatzen du.

Beatriz Fernández Rodríguez Bibliotekonomia eta Dokumentazioko diplomaduna da 2000. urteaz geroztik (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea). Dokumentalista gisa aritu da hainbat erakunde pribatutan eta Infoempleo.com-en, eta liburuzain ere izan da zenbait unibertsitate-ikastegitan, baina azkenean artxibozain izatera bideratu du bere formakuntza eta esperientzia profesionala, bai artxibo historikoetan, bai artxibo zentral eta bitartekoetan.

Zortzi urtez baino gehiagoz funtsen identifikazio eta deskribapenarekin, aretoko arretarekin eta kontsulten ebazpenarekin lotutako hainbat proiektutan parte hartu zuen Avilako Artxibo Historiko Orokor Militarrean.

Ondoren, artxiboko unibertsitate-espezialista izateko ikastaroa egin zuen, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (UNED) 2008az geroztik eskaintzen duena. Artxiboetan egindako lanak Estatuko artxibozain laguntzaileen taldean sartzeko oposizioak prestatzera eraman zuen. Oposizioak prestatzeko, Funtzio Publikoko Artxibozainen Espainiako Elkarte (AEFP) ezagutu zuen, hainbat laguntza- eta errefortzu-ikastaro egin baitzituen bertan, eta bertako kidea da 2018. urtetik. Gaztela eta Leongo Artxibozainen Elkarteko kidea ere bada; elkarte horrek hiru hilean behingo aldizkari garrantzitsuak argitaratzen ditu, *Tábula* eta *Archivamos*, besteak beste.

Gaur egun, Reina Sofia Museoko Artxibo Nagusiko arduraduna da; horixe izan du lehen lanpostua 2019an Estatuko Artxiboetako Laguntzaileen Kidegoan sartu zenetik. Bertan, erakundeak sortzen duen dokumentazio guztia kudeatzen du, erakundeak berak nahiz herritarrek eskura izan dezaten informazioa, tratamendu tekniko ego-kia aplikatuz.

Mar Pérez Morillo Espainiako Liburutegi Nazionaleko Prozesu eta Zerbitzu Digitalen Dibisioko zuzendaria da.

Latineko doktoregoa lortu zuen Cádizko Unibertsitatean. Liburuzain, Artxibozain eta Arkeologoaren Kidegoko kidea da 2003az geroztik. Espainiako Liburutegi Nazionaleko erakunde-webaren arduraduna izan da, baita sare sozialeko kontuena eta Lege Gordailu Elektronikoa ere. Liburutegien Lankidetzarako Kontseiluko Lege Gordailua eta Ondare Digitala lantaldeko koordinatzailea da. Espainiako Liburutegi Nazionalaren ordezkaria da Interneteko Kontserbaziorako Nazioarteko Partzuergoko Zuzendaritza Kontseiluan.

Gloria Vilchesek (Valentzia, 1978) Ikus-entzunezko Komunikazioko doktore-titulua eskuratu zuen Valentziako Unibertsitatean. *Usos, estilos y formatos contemporáneos del audiovisual de apropiación en España* izeneko ikerketa bat egin zuen, Gasteizko Montehermoso Kulturunearen beka bat jaso zuena (2008). 2009az geroztik, Xcèntric koordinatzen du, Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroko zinema esperimentaleko programa, baita zentro horretako ikus-entzunezko beste proiektu batzuk ere. Aldizka, zinema esperimentalarri buruzko eskolak ematen ditu zinema-eskoletan (Elías Querejeta Zineskola, MasterLav) eta unibertsitateko master eta graduondokoetan. Aldi berean, bere proiektu pertsonalak garatzen ditu collagearen eta super8-aren arloan.

Alicia Parras Gizarte Komunikazioko doktorea da (Dokto-
regoko Sari Berezia, 2015), eta Dokumentazio Unitateko irakaslea,
UCMko Informazio Zientzien Fakultatean. Argazkigintza garaikidea-
ren tratamendu dokumentala eta prozesu informatibo, kultural eta
estetikoak ditu ikerketa-lerro nagusizat, eta hainbat liburu-kapitulu
eta artikulu zientifiko idatzi ditu horri buruz. *Visiting Scholar* izan da
UCLAn; nazioko eta nazioarteko biltzar askotan parte hartu du, eta
argazkigintzako zenbait erakusketaren komisarioa izan da. Haren
proiektu pertsonalen artean, nabarmentzekoak dira *We don't care
anymore*, emakumezko artisten nazioarteko kolektibo bat, eta *Teenage
Editions*, fanzineen argitaletxe bat. Bi ikerketa-taldetako kidea
da: Ondare Digitala Hedabideetan (PaDem) eta Argazkigintza eta
Dokumentazioa (Fotodoc).